

OLAZTI

2025erako zerga-tasak

Olaztiko Udalak, 2024ko azaroaren 19ko osoko bilkura arruntan, jarraian ematen den erabakia hartu zuen 2025eko ekitaldian aplikatzeko zerga-tasen harira. Argitaratzen da, orok jakin dezan, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean ezarritakoa betetzeko.

–2025eko ekitaldian aplikatzeko zerga-tasak.

a) Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga:

1.–125.000,00 eurora bitarteko kostu erreal eta benetakoa: %2,5.

2.–Egiazko kostu erreal, 125.000,01 eurotik 187.500,00 eurora bitarte: %3.

3.–Egiazko kostu erreal, 187.500,01 eurotik 250.000,00 eurora bitarte: %4,5.

4.–Egiazko kostu erreal, 250.000,00 eurotik gora: %5.

b) Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga:

%13,12ko zerga-tasa ezartzea sortzealdiaren arabera gehieneko koefizienteekin, zeinak aurreikusita baitaude 2/1995 Foru Legearen 175.2 artikuluan.

c) Lurraren kontribuzioa:

Tasa bakarra landa-lurraren eta hiri-lurraren gaineko kontribuziorako (%0,26).

d) Ekonomia-jardueren gaineko zerga:

Indizea: 1.40.

Erabaki honen aurka, errekurtso hauetako bat aurkez daiteke, hautara:

a) Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi errekurtsoa, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari edo Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, edo

c) Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Olaztin, 2024ko azaroaren 20an.–Alkatea, Joseba Vizuete Ascargorta.